

Arizmendiarrietaren gogoeten hileroko igorpenekin jarraituz, maiatz honetan eta LANGILEAREN EGUNA aprobetxatuz, LANAREN kontzeptuarekin loturik egon daitekeen mezu-sorta bat aukeratu dizuegu. On Jose Mariarentzat nahitaezko euskarri osatzen dute Heziketak, Lanak eta Aurrezteak gizarte gero eta hobea lortzen joan gaitezen.

Beraien artean aurkituko dituzue baita ere KOOPERAZIO Buletinetan, hori izan baitzen T.U.LANKIDE aldizkariak izan zuen lehen izena, berak idatzitako zenbait aipamen. Bertan ikus ditzakegu, besteak beste, kooperatibista ez diren beste langileekiko elkartasuna izateko deiak.

**Lana da nork bere burua gauzatzeko, elkartasunerako, norbera hobetzeko eta hobekuntza kolektiborako bidea; zalantzan jartzeko zailagoa den kontzientzia gizatiar eta sozial baten adierazgarria da. p277**

### Beste gogoeta batzuk Lanaz

Gizakiak, lanaren bitartez, eraldatu eta emankor bihurtzen du natura, eta lana da komunitatearen ondarerik onena. p272

Etorrizuna lan egiten eta lana goratzen dakitenentzat da. p279

Ez al da ba lana kapitala baino elementu nobleago, zaharrago eta gizatiarragoa, eta, honenbestez, ez al du estimu handiagoa merezi? Ezin justifikatuzko anbizioa ote da haren ordezkariak gidaritzaren nagusitasuna nahi izatea. p280

Ondo lan egitea gauza bat ondo eta modu onean egitea da. Ez da tautologia. Ondo egindako gauza bat, hau da, baliagarria, behar bati erantzungo diona, zeinaren kostua prezioa baino txikiagoa izango baita, eta prezioa bidezkoa eta onartua izango baita. Modu onean egindako gauza bat, teknikarekin, antolamenduarekin, ahalegin boluntarioak elkartuta eta batuta, eta betiere lan egiten duen gizakia errespetatuz, zeren eta helburuak ez baititu bitartekoak guztiz justifikatzen eta gizakia, maila altukoa nahiz baxukoa izan, beti baita garrantzitsuena. p284

Hezkuntzak, lanak eta aurrezteak hain ematen dute desberdin belarrira, ezen gai bakar gisa aztertzea kontraesana dirudien; hala ere, arazo berari dagozkion hiru dimentsio edo aspektutzat jo behar ditugu: gizakien eta herrien sustapen sozialaren arazoari loturiko dimentsio edo aspektutzat. p523

Langile batek ez badu topatzen egiten duen lanean bere sentiberatasunak eta gaitasun naturalak eskatzen dioten atsegina norbanako horrek atsegin eza ereingo du ezinbestez p290

Arduraduna gizartearen elementu dinamiko eta funtsezkotzat jota, beharrezkoa da bere burua sustatzea, atzetik datozenek ere sustatu ahal izan daitezen, bakoitzari dagokion eskalan edo mailan. Agintean dagoenak horretarako ezgauza dela sentitzen duen unean, bere betebeharrak morala da bera gaintu dezakeenari pasoa ematea, elementu hertsigarria edo pieza ortopediko oztopatzailea ez izateko. Agintea baldintza horietan baliatzeak indiziplina giroa bultzatzen du. Cooperación-13-1961/09

Gaur egun, lanaren alde penagarria injustizia eta duintasun falta da. Cooperación-1-1960/09

Lana komunikaziorako, sozializaziorako, elkartasunerako, askapenerako, martxa kolektiborako faktorea da. Cooperación-3-1960/10

Egunetik egunera gero eta errazago ordeztzen dira lanerako indar muskularra edo fisikoa baino ez duten pertsonak. Hain zuzen ere, aurrera egiteak esan nahi du gero eta morroi mekaniko eta tekniko gehiago sortzea, horietarako mota guztietako energi iturriak erabiliz. Arrazoi horregatik beragatik, egunetik egunera gero eta peoi gutxiago eta langile tekniko gehiago behar dira. Egunetik egunera gero eta lan intelektualeko portzentaje handiagoa behar da. Gure pertsona morroi mekaniko konplexuagoak eta ugariagoak gobernatzera deituta dago. Cooperación-17-1962/01.

Esan dugu kooperatibistak norberaren konturako langileak direla, baina orain gehitu behar dugu ez direla gaur egun emantzipazio ekonomiko eta sozialeko baldintza berdinetan lan egiteko zortea ez duen langilariaren mundu loriatsuaren desertore izan behar. Cooperación-18-1962/02

Hazkunde kooperatibista ezin da asebeteta geratu gure lan arloak bere askatasun ekonomiko eta soziala konkistatzen ez duen bitartean. Cooperación-18-1962/02.